

Edertasuna ala izua

Mugaren alde honetan, Iparraldean, ezinbestekoa ez den jarduerako oro debekatua zaigu. Agindu horrekin, ezinbestekoa dena eta ez dena letra larriz adierazia da, eta komunitate bizi den kultura ez da sartzen ezinbestekotasun horretan. Norbanakoak bere etxean kultura kontsumitu dezake, garai batean euskara mintzatzeko ahal zuen bezala. Etxean, ezkutika, norbanako gisa, nire mundu intimoa elikatu dezaket, baina ezin dut partekatu, partekatzea ez baita ezinbestekoa (albigogian hala esan digute, beraz, hala izango da, ez?). Hots, Edipo mundutik Narcisen mundura murgiltzeko agindua jaso dut, denon hobe beharrez, arbasoengandik jasotako kulturatik neure egozentrismo hiper boteretsura pasatzea ontzat jotzen da.

Medikuak mintzatu dira frango, errana izan da zer den egia eta zer ez den. Baina ez da sekula erraten medikuntza bera zer den. Hipokratesek, *Epidemia* deituriko idatzietan, medikuntza arte bezala definitzen du: gertakari, sintomen, norbanako eta tesuinguruaren arabera interpretazioaren arte partekatu bat. Hau bera azaltzeko, askotan erabiltzen den adibidea da, eta sentitzen dut berriz ere hau ateratzea, *lobotomia* deituriko ebakuntza da. Egas Monizek asmatutako teknika izugarri horrek Nobel saria irabazi zuen 1949an, pentsa. Zalantzek eta elkarrizketek eskizofrenia sendatzeko beste baliabide batzuk ekarri dizkigute, eskerak...

Botere guseen irizpideak segituz (politika ganbarak, komunikabideak, polizia, justizia...), medikuntza ezinbestekoa ote da orduan? Ulertzen dudanez, zientziak, berez, galderak eskaintzen ditu erantzumak baino gehiago. Ikerketa liluragarri gehienek funtsezko galderak eruditzen dituzte. Baina zientzia ulertzeko eta edukiak jabetzeko (edozein zientzia, gizarte zientziak barne), pentsaera kritikoa eta erretorika gaitasunak garatzeko ahalmena eta kultura be-



Theodore Gericaulten *La radeau de la Méduse* (Méduse ontziaren almadia) margolana (1818-1819). BERRIA

harrezkoak ditugu. Baina hau, justuki, hau debekatu egin digute. Herritarrak analisi kritikoak eta erretorikoak desjabetu dira, ez baita irizpide kritikorako espazio librerik existitzen gehiago. Eta gehienbat horrek kezkatzen nau, ez baita lehen aldia gertatzen dena gure historian. Pandemiaren kudeaketak pandemia bezainbat kezkatu behar gaituela

uste dut, batak beste-ko albo kalteak utziko baititu.

Kolpe traumati-ko batean bezala, egunero errepikatutako zifren menpe, agonia psikikoan sartu gara, heriotzaren

beldurrean, lagun eta senideengatik izutuak. Beldur errepikakor horrek pentsaera izoztu digu. Informazio kontraesankor eta etengabeak gure gogoetarako espazioa kolonizatzen du erabat. Erruduntasunean, eguneroko bizitza eramaten saiatzen gara, baina ez bagara ondo portatzen, gauzak okerrago joango direla behin eta berritro errepikatzen zaigu. «Ondo portatzen bazara, beharbada ez zara konfinatua izango. Zer nahi duzu? Zure aita edo amona ospitalera bidali? Zertan dabilta zure haurrak? Lanera joan behar zara, bestela, ekonomia hankaz gora botako duzu

eta txirotasunean eroriko zara, lanik gabe. Baina zure haurra etxean geratu behar da, denon hobe beharrez...». Ez naiz gogoratzen irratian jasotako agindu paradoxiko guztiez... Agindu paradoxikoek paralizatu egiten naute, eta Stockholmeko sindromean murgiltzen naiz: nire pentsaera eta erabakitze gaitasun osoa bahitzailearen eskuetan uzten dut, eta agindu bakoitza neure egiten dut. Dudaren bat sartzen bazait, edo desadostasunen bat, pertsekuzioren beldurra agertzen zait: badakit zenbat isun jarri diren egunean bertan, zenbat atxilotu... irudietan indarkeria da nagusi.

Ihesari bidea mozteko, zatiketa nagusitu da. Barne zatiketa. Hannah Arendtek deskribatu bezala, jatorrizko taldeak banatu dira, adinaren arabera, edo etxean barnean bertan. Kultura sunsitudun komunitateak puskatzen dira, elkarguneak debekatuz eztabaia desageratzen da komunikabide eta sare sozialetako monologo mesederako. Seguramenak duda gainditu du, egia bakarrak ikuspartzen da komunikatu du. Amen.

Baina zientziak berak (neurologo eta psikiatren elkarlanetan) aspaldian frogatu du isolamendu sensorialak garuna atrofiatzen duela. Eskaner batekin ikus daiteke isolamendu sensorialak

izuz beteriko mundu batean murgiltzen gaituela. Neuropsikiatriak dio behar-beharrezkoa dugula denboraren irudikapen bat eraikitzea, molde partekatuan, gure historiaren kontakizunaz jabetu gaitzen. Bestela ez dakigu ezta nor garen ere, eta iragan traumatikoaren preso gertatzen gara. Horrek pandemiaren gertakariak harago eramaten gaitu, eta, paraleloan, argi bat ekartzen digu: gure historian zer har zer kontaktzen ahal dugun eta zer ez. Edo zer baimendua zaigun eta zer ez. Baina isiltasuna onar-

tuz, sarraskiaren konplize egiten naiz. Zer kontaktzen ahal den eta zer ez, erabakitze eskubidearekin lotzen ahal da, baina erabakitze eskubideari uko eginez neure gizatasuna galtzen dut. Totalitarismoaren arma nagusia konformismoa da: egia bakar bat dago. Gaizkileak horiek dira, demokratik hauek, eta, ez baduzu sinesten, denetan errepikatua izango da, eta egunero: zine aretoetan, telean, irratian, egunkarietan, sare sozialetan, Interneteko plataformetan... Denetan. Burmuin garbiketa. Afekzio sostengua erakusten badut, irainean eta blasfemian sartzen naiz, eta pertsekuzioa jasango dut. Hilak ezingo dira omendu. Alta, Gurs kontzentrazio esparruan, bertsoak kantatu eta idatzi ziren, Ravensbrücken opera bat idatzi zuten...

Gericaulten *Le radeau de la Méduse* (Méduse ontziaren almadia) pinturak eskandalua eta debate oso bortitza sortu zituen, itsasgintza legeak aldatu zituen eta garai oso baten pentsaera auzitan jarri zen. Edertasunak kontakizunaren bidea irekitzen du, kontakizun antizak erresilientziarako ahalmena eta kooperazio gizarte baketsu bat ahalbidetzen du, gerlax josia izan den arren. Edertasunak, pentsaera partekatua garatzen du.



LAHAZKA
Ximun Fuchs

Eskaner batekin ikus daiteke isolamendu sensorialak izuz beteriko mundu batean murgiltzen gaituela. Neuropsikiatriak dio behar-beharrezkoa dugula denboraren irudikapen bat eraikitzea, molde partekatuan, gure historiaren kontakizunaz jabetu gaitzen